

Euskal AEko Industriaren negozio-zifrak % 19 egin du gora 2021ean

Enpleguak % 0,5eko tasa positiboa izan du berriro, eta lan egindako ordu kopuruak % 5,1 egin du gora

2021ean, Euskal AEko industriaren jarduerak COVID-19aren pandemiaren ondorioz aurreko urtean izandako beherakada gainditu zuen, eta negozio-zifra % 19 handitu zen, Eustaten datuen arabera.

Suspertze hori ia adierazle ekonomiko guztietan gertatu da. Enpleguak % 0,5 egin du gora **landunen** kopuruan, eta pandemiaren aurreko azken urteetako joera positibora bueltatu da, baina ez ditu aurretiko zifrak lortu. 201.950 enplegatu izan dira, 2020an baino 933 gehiago, baina 2019ko zifretara iritsi gabe. **Lan egindako orduen** kopuruak igoera handiagoa izan du; % 5,1 egin du gora, 2020aren aldean.

Euskal AEko industriak –manufaktura-industria, erauzketa-industriak, energia elektrikoa, gasa eta lurruna eta uraren eta saneamenduaren hornikuntza barne hartzen ditu– **11.138 establezimendutan** garatu du guztira jarduera, aurreko urtean baino % 0,3 gutxiago.

Negozio-zifra 58.757 milioi eurora iritsi da prezio arruntetan 2021ean, 2020an baino % 19 gehiago, Baina, oraindik, 2019ko zenbatekoaren azpitik. Aldi berean, pertsonalaren gastuek % 3,9 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta.

Balio erantsi gordina faktore-kostuetan adierazle makroekonomikoa da, eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpen osoaren balio ekonomikoa adierazten du, ekoizpen horretarako beharrezkoak izan diren intsumoak kenduta. 2021ean, Euskal AEko industria-sektoreak sortutako balio erantsi gordina 14.455 milioi eurokoa izan da, 2020koa baino % 9,9 handiagoa.

Euskal AEko industriaren adierazle ekonomiko nagusiak, lurralde historikoaren arabera (mila €). 2021

	Euskal AE	2021-2020 (gehiguntza %)	Araba/Álava	2021-2020 (gehiguntza %)	Bizkaia	2021-2020 (gehiguntza %)	Gipuzkoa	2021-2020 (gehiguntza %)
Pertsona enplegatuak NU	201.950	0,5	41.618	-0,1	79.181	0,1	81.151	1,1
Negozio kopurua	58.757.265	19,0	13.440.560	14,0	25.774.737	23,0	19.541.968	17,6
Balio Erantsi Gordina faktore-kostuetan	14.454.664	9,9	3.103.153	7,6	5.618.880	13,6	5.732.631	7,8
Pertsonal gastuak	9.202.819	3,9	1.921.837	4,7	3.543.849	2,7	3.737.133	4,7
Itxurazko lan-produktibitatea	71,6	9,4	74,6	7,7	71,0	13,4	70,6	6,7
Pertsonal-kostuak pertsonako	45,6	3,4	46,2	4,8	44,8	2,6	46,1	3,6
Soldaten arabera doitutako lan-produktibitatea (%)	157,1	5,8	161,5	2,8	158,6	10,5	153,4	3,0

Data 2023ko Apirilaren 27a


Iturria: Eustat. Industriaren inkesta

2021ean, Euskal AEko industria-sektoreak enplegatu bakoitzeko 71.575 euroko **itxurazko lan-produktibitatea** –ekoizpen-prozesuari aplikatutako lan-unitate baten errendimendua– erregistratu du, 2020koa baino % 9,4 altuagoa, eta **pertsona bakoitzeko langile-kostuak** 45.570 eurokoak izan dira, aurreko urtekoak baino % 3,4 altuagoak. Bi adierazle horiek batzen badira, **soldataren arabera doitutako lan-produktibitatearen ratioa** lortzen da, eta hark adierazten du zenbat balio erantsi eskuratzen den enplegatu bakoitzeko, batez besteko kostuak kontuan hartuta. 2021eko balioa % 157,1ekoa da, edo, beste modu batera esanda,

balio erantsiko terminoetan lortu zen enplegatu bakoitzeko kostuen balioa halako 1,57. Adierazle hori % 5,8 handitu da 2021ean, 2020aren aldean.

Zifra horiekin bat etorritz, **ustiapenaren emaitza** edo irabazia interes eta zerga aurretik, % 86,2 igo da. Kontzeptualki, ustiapenaren emaitzak adierazten du enpresa batek galerak edo irabaziak dituen ekitaldi baten amaieran, haren jarduera nagusiari dagokionez. 2021ean ustiapen-emaitzaren igoera erregistratutako altuenaren (% 99,5) antzekoa da, 2014koaren antzekoa.

Euskal AEko industria sektoreko balio erantsi gordina faktore-kostuetan, lurralde historikoari jarraiki Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat. Industriaren gaineko inkesta

Lurralde-analisia

Pandemiak eragindako ondorioen suspertzea hiru lurraldeetan antzeman da, baina ez modu berean.

Adierazle nagusiak kontuan hartuta, Bizkaia izan da suspertze handiena izan duen lurraldea, eta Araba izan da, nolabait, osasun-krisi horretatik neurri txikiagoan suspertu dena.

Negozio-zifraren zenbatekoak nabarmen egin du gora hiru lurraldeetan, baina Bizkaian izan da igoerarik nabarmenena; izan ere, aurreko urtean baino % 23 gehiago fakturatu da, eta Gipuzkoan % 17,6 eta Araban % 14.

Industria-enpleguari dagokionez, hainbat joera izan dira: Gipuzkoan eta Bizkaian aldakuntzak, oso handiak izan ez badira ere, positiboak izan dira, % 1,1 eta % 0,1ekoak, hurrenez hurren; Araban, berriz, industria-enplegua % 0,1 jaitsi da. Lan egindako orduak, aldiz, tasa positiboak

izan dituzte hiru lurraldeetan, eta handiagoak dira: % 5,7 Gipuzkoan, % 5,6 Bizkaian eta % 2,9 Araban. Industria-establezimenduen kopuruari dagokionez, % 1 murriztu da Bizkaian eta % 0,3 Araban; Gipuzkoan, berriz, % 0,5 areagotu da. Gainera, pertsonalaren gastuek igoera handiagoa izan dute Araban eta Gipuzkoan, % 4,7koa bi lurraldeetan, eta pixka bat txikiagoa Bizkaian (% 2,7).

Osagaien bilakaeraren ondorio gisa, industriak hiru lurraldeetan sortutako balio erantsi gordinak bilakaera oso positiboa izan du. Hala, 2021ean 2020an baino % 13,6 altuagoa izan da Bizkaian, % 7,8 altuagoa Gipuzkoan eta % 7,6 altuagoa Araban. Itxurazko lan-produktibitatea enpleguaren arabera neurtuta ikusten da Bizkaia eta Gipuzkoa direla muturretako lurraldeak: Bizkaian, produktibitatearen irabazia % 13,4koa izan da, eta Gipuzkoan, % 6,7koa; Araban tartean da, eta batez besteko produktibitatea %7,7 areagotu da bertan

Gainerako adierazleetan ez bezala, Bizkaian izan dute enplegatuko kostuek doikuntza baxuena; izan ere, % 2,6 areagotu dira, eta Gipuzkoan % 3,6 eta Araban % 4,8. Hala, Bizkaian pertsonako batez besteko kostua hiru lurraldeetako baxuena da, 44.756 eurokoa, eta, Gipuzkoan, 46.052 eurokoa eta Araban, 46.178 eurokoa. Datu horietan oinarrituta ondoriozta daitekeenez, soldaten arabera doitutako lan-produktibitatearen koefizientea Gipuzkoan batez besteko kostuen % 153,4koa da, eta Bizkaian % 158,6koa eta Araban % 161,5ekoa.

Analisi sektoriala

Gure autonomia-erkidegoko sektore nagusiak, balio erantsiaren terminoetan, 2021ean, honako hauek izan dira: *Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa salbu, Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa eta Metalurgia, burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa*. Hiruretan gainditu dira, nabarmen, mila milioi euroak balio erantsian, eta, lehen kasuan, baita bi milioi euro ere. *Produktu metalikoen fabrikazioaren* sektoreak berak bakarrik Euskal AEko industriaren balio erantsi osoaren % 20,2 metatzen du, eta aipatutako hirurek batera guztizkoaren % 40 gainditzen dute (% 42,1).


Nabarmendu behar da hiru sektore horien industriaren balio erantsi osoaren ehunekoak bat datozela haietako enplegatu kopuruarekin; hala, *Produktu metalikoen fabrikazioak* enpleguen guztizkoaren % 25,1 hartzen du, *Makineriak eta ekipoen fabrikazioak* % 11,2 eta *Metalurgiak* % 8,1.

Kontuan hartu beharreko balio erantsiak dituzten beste sektore batzuk honako hauek dira: *Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa* (% 7,7); *Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdiatoiaren fabrikazioa* (% 5,7); *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industria* (% 5,6) eta *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura* (% 5,6). Lehen hiru kasuetan, enpleguaren ehunekoak haien balio erantsiekin bat datoz: % 6,7, % 5,9 eta % 7,4, hurrenez hurren. Hala ere, nabarmendu behar da *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura* sektoreak industriaren balio erantsi osoaren % 5,6 hartzen duela, eta enplegatuen % 1,2 baino ez.

Bestalde, gure erkidegoko industriaren azpisektoreak askotarikoak dira. Izan ere, honako hauek konbinatzen dituzte: batetik, eskulanaren itxurazko produktibitatea duten eta langileen batez besteko kostu baxuak dituzten jarduerak (besteak beste, *Ehunen industria, janzkiak egitea, larruaren eta oinetakoen industria; Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa eta Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik; otargintza eta espartzugintza*) eta, bestetik, adierazle beretarako balio nabarmen altuagoak dituzten beste jarduera batzuk. Besteak beste, honako hauek azpimarratu behar dira: *Ura hartu, araztu eta*

banatzea, Botiken fabrikazioa, Kokeriak eta petrolio-fintzea eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura.

Industriako sektoreak, balio erantsi gordineko partaidetzaren eta enplegu osoaren arabera (%). 2021



Iturria: Eustat. Industriaren inkesta

2021ean, azpisektoreen barruan itxurazko lan-produktibitatea honako balio hauen artekoa izan da: 29 mila euro enplegatutako bakoitzeko, *Ehunen industria, janzeriak egitea, larruaren eta oinetakoen industriaren* kasuan, eta 327 mila, *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren* kasuan.

Honako sektore hauek ere izan dute itxurazko lan-produktibitate altua, besteak beste: *Kokeriak eta petrolio-fintzea eta Botiken fabrikazioa*; lehenengoak pertsonako 285 mila euro baino gehiagoko produktibitatea gainditzen du, eta bigarrena 181 mila euro ingurura iristen da.

Itxurazko lan-produktibitate oso baxuarekin bat, *Ehunen industria, janzeriak egitea, larruaren eta oinetakoen industriak* (28.680 euro pertsonako) eta *Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioaren* sektoreak (37.519 euro) langileen batez besteko kostu baxuenak erregistratu dituzte (21.009 euro eta 29.055 euro enplegatutako, hurrenez hurren).

Enplegatutako langileen batez besteko kostua 85.466 euro izan da enplegatutako bakoitzeko *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren* kasuan eta 97.990 eurokoa, *Kokeriak eta petrolio-fintzearen* kasuan. Esan bezala, sektore horiek ere itxurazko lan-produktibitate altuena ere erregistratu dute, eta, *Botiken fabrikazioarekin* batera, soldaten arabera doitutako lan-produktibitatearen maila handiena erregistratu dute, % 296 azken horren kasuan, eta % 383 eta % 291,4, *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren* kasuan eta *Kokeriak eta petrolio-fintzearen* kasuan, hurrenez hurren.

Bestalde, *Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren* sektoreak, soldaten arabera doitutako lan-produktibitatearen maila baxuena erregistratu du, % 118,4koa.

Euskal AEko industriaren adierazle ekonomiko nagusiak, sektorearen arabera (A64). Mila €. 2021

	Pertsona enplegatuak NU	Negozio kopurua	Balio erantsia	Pertsonal gastuak	Itxurazko lan-produktibitatea	Pertsonal-kostuak pertsonako	Soldaten arabera doitutako lan-produktibitatea (%)
Ateratze-industriak	480	119.222	35.825	24.129	74,6	50,3	148,5
Eliekaduraren, edarien eta tabakoaren industria	14.906	4.136.998	815.702	496.232	54,7	33,3	164,4
Ehunen industria; janziak egitea, larruaren eta oinetakoaren industria	2.350	196.040	67.397	49.370	28,7	21,0	136,5
Eguraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik; otargintza eta espartzugintza	3.884	618.319	190.358	128.902	49,0	33,2	147,7
Paperaren industria	3.813	1.470.035	355.884	195.406	93,3	51,2	182,1
Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa	3.579	313.825	134.282	103.989	37,5	29,1	129,1
Kokeak eta petrolioaren finitzen	976	5.200.504	278.679	95.638	285,5	98,0	291,4
Industria kimikoa	3.996	1.522.035	396.857	210.101	99,3	52,6	188,9
Botiken fabrikazioa	1.123	413.737	203.063	68.711	180,8	61,2	295,5
Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa	13.471	3.333.089	1.106.611	641.083	82,1	47,6	172,6
Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	5.067	1.110.995	373.762	239.374	73,8	47,2	156,1
Metalurgia, burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa	16.415	7.084.731	1.555.471	877.167	94,8	53,4	177,3
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen salbu	50.615	7.745.923	2.920.852	2.163.271	57,7	42,7	135,0
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	6.773	976.314	367.071	268.016	54,2	39,6	137,0
Material eta ekipoen elektrikoaren fabrikazioa	9.115	1.905.957	526.089	407.745	57,7	44,7	129,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	22.628	5.144.415	1.613.358	1.130.327	71,3	50,0	142,7
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdiatoiaren fabrikazioa	11.993	5.546.504	820.400	616.843	68,4	51,4	133,0
Beste garraio material baten fabrikazioa	7.078	2.659.388	643.104	453.582	90,9	64,1	141,8
Altzarien fabrikazioa; manufaktura beste industria batzuk	6.943	994.255	336.895	219.840	48,5	31,7	153,2
Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa	7.480	805.034	368.855	311.504	49,3	41,6	118,4
Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	2.487	6.254.053	813.991	212.554	327,3	85,5	383,0
Ura hartu, araztu eta banatzea	1.350	263.407	137.481	70.955	101,8	52,6	193,8
Hondakin urak hartu eta tratatzea; hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea	5.428	942.485	392.677	218.080	72,3	40,2	180,1

Data 2023ko Apirilaren 27a

Iturria: Eustat. Industriaren Inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62